

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Euskal narraziogintzako aldiak, obrak, autoreak eta ezaugarriak ezagutu eta erlazionatu.	<p>1.1 Euskal ohiturazko eleberriaren eta eleberri modernoaren ezaugarriak bereizten ditu.</p> <p>1.2 Euskal narraziogintzako erreferentziako autoreak eta haien lan esanguratsuen izenburuak erlazionatu eta denboran kokatzen ditu (1950eko hamarkadaren aurretikoak eta ondorengoak).</p> <p>1.3 Euskal narraziogintzako erreferentziako lanen izenburuak eta haien testu zatiak erlazionatzen ditu.</p>
2. Literatura-testu batean, narratzailea identifikatu eta harekiko eskatutako baldintzen arabera testua eraldatu.	<p>2.1 Euskal narraziogintzako erreferentziako testu zatiek darabilten narratzaile motarekin erlazionatzen ditu, erlazioak justifikatzeko testuko adibideak emanez.</p> <p>2.2 Narratzaile eraldaketak egiten ditu aditza zuzen idatziz, pertsona kontuan izanik eta komuntadura zainduz.</p>
3. Emandako literatura-testuetan pertsonaiek egiten, esaten, pentsatzen... dutena aztertuz, haien ezaugarri bereizgarriak ondorioztatu eta justifikatu; eta izaeraren arabera ondoriozta daitezkeen ekintzak hautatu.	<p>3.1 Testu ezagunetako pertsonaien karakterizazioak haien pentsamendu, sentimendu, ekintza eta hitzekin erlazionatzen ditu, eleberriei buruz ikasitakoa edota bere esperientzia baliatuz.</p> <p>3.2 Pertsonaia baten deskribapeneko ekintzak, hitzak, pentsamenduak... kontuan izanik, pertsonaia deskribatzeko adjektibo egokiak hautatzen ditu.</p> <p>3.3 Pertsonaiak deskribatzeko erabil daitezkeen adjektiboek adierazten dutena pertsonaiaren hitzen bidez, haren ekintzen bidez edota haren pentsamendu edo sentimenduen bidez adierazten du.</p>
4. Narrazioen egiturako elementuak eta euren arteko erlazioak kontuan hartuz, eta autonomia-maila onargarria erakutsiz, nor bere testua planifikatu eskema baten bidez.	<p>4.1 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementu bakoitzerako egon daitezkeen aukerak proposatzen ditu.</p> <p>4.2 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementuentzat proposatutako aukerak baloratzen eta erabakiak hartzen ditu (askotariko irizpideak baliatuz: beste elementuekiko koherentzia, sinesgarritasuna, erakargarritasuna, etab.).</p> <p>4.3 Norberaren narrazioa sortzeko, narrazio-egiturako elementuei buruz hartutako erabakiak idatziz adierazten ditu; planifikazio-orrialde batean jasotzen du.</p>
5. Testuaren kohesioa eta zuzentasuna bermatzeko landutako baliabideak autonomiaz aplikatu, emandako testuetan nahiz norberarenean.	<p>5.1 Esaldietan adierazitako ekintzak zehaztutako ordenan lotzen ditu, ekintzen arteko denbora-erlazioak adierazteko denborazko testu-antolatzaile egokiak erabiliz.</p> <p>5.2 Zuzen deklinatzen ditu eskainitako izen-sintagmak (leku-denborazko kasuak, bereziki) Salbuespenak identifikatu eta azaltzen ditu.</p>
6. Kasuan kasuko literatur lehiaketa-sarietarako narrazioak egokitu (Madalen sariak edota Beldurrezko ipuin lehiaketa edota Madelon sariak edota Asun Casasola...)	<p>6.1. Narrazio-egiturari jarraituz eta pertsonaiak karakterizatuz, narrazio-istorio zuzena idatzi, berrikusi eta entregatzen du Erretereriako Udalean, Madalen sarietan parte hartzeko.</p> <p>6.2. Narrazio-egiturari jarraituz eta pertsonaiak karakterizatuz, narrazio-istorio zuzena idatzi, berrikusi eta entregatzen du ikastolan, "Beldurrezko ipuin lehiaketa" parte hartzeko.</p>

<p>EUOLA ASUN CASASOLA...)</p>	<p>6.3. Narrazio-egiturari jarraituz eta pertsonaiak karakterizatuz, narrazio-istorio zuzena idatzi, berrikusi eta entregatzen du Irungo bilgune feministak antolatutako "Asun Casasola" ipuin lehiaketan parte hartzeko.</p>
<p>7. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.</p>	<p>7.1. Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira. 7.2. Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>
<p>8. Ahozko tertulia literarioa eraikitzea helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza baliabide egokiak erabiliz.</p>	<p>8.1. Tertulia literarioetan eraginkortasunez aritzeko gidoi bat prestatzen du. 8.2. Tertulia literarioa egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz. 8.3. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko begirunea adierazten duten esapideak txertatuz. 8.4. Esaldiak osatzen ditu ideien arteko kausa-ondorio erlazioa edo aurkaritza erlazioa adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.</p>